

Posta elektronikoa erabiltzean datuak babesteko jardunbide egokiak

- **Erabili beti zure kontu instituzionala**
 - Ez erabili helbide pertsonalik gai akademiko edo administratiboetarako.
 - Segurtasuna eta trazabilitatea bermatzen laguntzen du.
- **Saiatu ez bidaltzen babestu beharreko datu pertsonalik**
 - Ez idatzi mezu elektronikoetan datu pertsonalik (**NAN, helbideak, telefono zenbakiak, banku kontuak...**).
 - Nahitaezkoa bada, galdetu zein den kanalik seguruena Datuak Babesteko Ordezkarari.
- **Ez bidali inoiz bereziki babestu behar den daturik**
 - Osasuna, sexu orientazioa, ideologia politikoa, erlijioa, etab. ez dira aipatu behar mezu elektronikoetan.
 - Datu horiek babes maila handiagoa behar dute.
- **Babestu hartzaileen nortasuna**
 - Mezu bat bidaltzen badiezu elkar ezagutzen ez duten ikasle edo lankide bati baino gehiagori, erabili beti **CCO** eremua (kopia ezkutua).
- **Berrikusi, bidali aurretik**
 - Egiaztatu zuzen sartu dituzula hartzaileak eta eranskinak.
 - Saiatu bidaltzean akatsik ez egiten, informazioa hirugarrenen eskura irits ez dadin.
- **Kontuz fitxategiak eranstean**
 - Ezinbestekoa ez bada, ez erantsi datu pertsonalak dituen dokumenturik.
 - Beharrezkoa bada, babestu datuak pasahitzarekin, eta jakinarazi pasahitz hori beste kanal baten bidez (telefonoa edo mezularitza).
- **Ez birbidali babestu beharreko informazioa duen mezurik**
 - Birbidaltzean, datu pertsonalak irits daitezke baimendu gabeko pertsonengana.
- **Zaindu zure kontuaren segurtasuna**
 - Erabili pasahitz sendo bat eta aldatu aldian behin.
 - Erabilgarri egonez gero, aktibatu bi urratseko autentifikazioa.
 - Ez eman zure pasahitza inori.
- **Kontuz phishingarekin eta mezu susmagarriekin**
 - Ez ireki estekarik edo deskargatu fitxategirik, espero ez zenituen edo arraro egiten zaizkizun mezuetan iritsiz gero.
 - Unibertsitateak inoiz ez du eskatuko zure pasahitza posta elektronikoz.
- **Ezabatu jada behar ez duzun hori**
 - Ez gorde datu pertsonalak dituen mezurik.
 - Ezabatu lanean edo jarduera akademikoan jada behar ez dituzun mezuak.
- **Posta elektronikoari buruzko arautegiak gogoraraztea**

- Sartu arautegi horien estekak.
- **Datu pertsonalak dituen mezu bat zabaldu bada**
 - Aztertu hartzaile guztiei mezu bat bidaltzeko aukera, jasotako mezua ezaba dezaten eskatzeko.
 - Jakinarazi berehala **Erabiltzaileentzako Zerbitzuari**, segurtasun arrakalaren berri eman dezaten.

Egin behar ez diren gauzak

- **NANa** edo agiri ofizialen kopiak eranstea mezuetan.
- Posta instituzionala erabiltzea kontu pertsonaletarako edo unibertsitatearekin zerikusirik ez duten gauzetarako.
- Kontaktu datuak dituzten ikasle zerrendak partekatzea irekian.
- Ikasle zerrendak eta haien kontaktu datuak dituzten mezuak onartzea.
- Aktak, kalifikazioak edo beste informazio akademiko batzuk izen-abizenekin zabaltzea.
- Unibertsitateko kideen informazio medikoa edo pertsonala argitaratzea.
- Posta erabiltzea babestu beharreko datu akademikoak trukatzeko (adibidez, aktak, kalifikazio nominalak).

Gomendioak

- Posta instituzionala da **lan eta komunikazio akademikorako** tresna bat, ez biltegiratzeko edo babestu beharreko datuak bidaltzeko tresna bat.
- Informazio pertsonala edo konfidentziala bidali behar baduzu, galdetu zure fakultateko adituei edo informatika zerbitzuari, **zer kanal erabil daitezkeen horretarako eta zeintzuk diren seguruenak**.
- Edozein zalantza izanez gero, **pentsatu, bidali aurretik**: beharrezkoa da informazio hau zabaltzea posta elektroniko bidez?
- Argitu zalantzak Datuak Babesteko Ordezkariarekin: dpd@ehu.eus
- Akats baten ondorioz inoren datu pertsonalak dituen mezu bat bidaltzen baduzu eta arriskutsua izan daitekeela uste baduzu, jakinarazi berehala Erabiltzaileentzako Zerbitzuari, segurtasun arrakalaren berri eman dezaten, eta baloratu hartzaile guztiei mezu bat bidaltzeko aukera, jasotako mezua beren postontzietan ezaba dezaten.